

Garai berria Ekialde Erdiarentzat?

• JOSEBA MACIAS •

[KAZETARI ETA SOZIOLOGOA]

Israelgo oraindik oraingo hauteskunde prozesuak beste behin erakutsi dizkio munduari estatu sionistaren berezitasun soziologikoak. Laboristen eta kontserbadoreen arteko barne indarren korrelazioa, emaitzek erkidego palestinarrarentzat izan dezaket garrantzia edo hauteskunde ondoen alderdiek egin ditzaketen aliantzak alde batera utzita, munduko mapako puntu betiere bero horretako errealtateak berriz ere egiaztatu digu lehendik ere aski zabalduta zegoen uste bat: inguru hartan bakea lortuko bada, Israelen, hau da, 1948an mendebaldeko herriek Ekialde Erdian zituzten interesen arabera sortutako estatuan, bazterrera utzi beharko da estatuaren kontzeptu militarista eta teokratikoa. Hurrengo lerrootan gogoeta batzuk egingo ditugun egungo albisteen haritik.

Barne haustura

Israelgo gizarteaz gutxi bada ere zerbait dakiena laster ohartzen da erkidego juduen arteko desberdintasun sozial eta kultural nabarmenez. Baina agian ez daki azken urteetan berriz ere xenofobia berezi bat sortu dela. *Arrazakeria sionista* ageriko horren azken adibidea Tel Aviv-eko taberna batean gertatu zen hauteskundeak baino egun batzuk lehenago: sefardi jatorriko bi israeldarrek gazte etorkin errusiar bat sastatu eta hil egin zuten; haren delitu bakarra hebraieraz hitz egiten ez jakitea izan omen zen. Tribalismoaren suak garretan dirau Israelen. Estatu hartan desberdina da askhenasi-en elitekoa izatea —europar jatorriko juduak edo zuriak—, sefardia izatea —Iberiako penintsulatik

eta Afrikako iparraldetik joandako juduak—, *48ko lurraldeak* deritzenetan bizi diren arabiarretako bat izatea —Israel sortu zenean, ez zuten parte hartu palestinarren diaspora handian, eta Israelgo hautesleriaren %23 dira—, erlijiotzat judaismoa duen erkidego beltz afrikarrekoa izatea —etiopiarrek bezala—, edo lehengo Sobietar Batasunetik iritsitako azken etorkinetako bat izatea... Gizartean agerikoak dira berreizkuntzak. Baina datu estatistiko berririk batek bestelako ikuspegi interesgarri bat eskaintzen du, elite sionistako sektore zabalak kezkatuko dituen, dudarik gabe: Israelen %40 ezkontza askhenasi-en eta herri islamikoetatik joandako juduen artekoak dira. Joera horrek irauten badu, berrogeita hamar urte barru biztanle gehienak mestizoak izango dira. Hori, behintzat, bada baikor izateko arrazoi bat...

Ortodoxoen pisua

Espero bezala, hauteskundeen irabazlea oposizioak aurkeztutako zerrendako burua izan da, laboristen hautagaia, Ehud Barak militarra. Baina haren garaipenarekin batera beste datu guztiz garrantzitsu batzuk izan dira; adibidez, joera ortodoxoek eutsi egin diete beren hauteskunde emaitzei, eta berriz ere

beharrezko giltzarriak izango dira gehiengo berriak osatzeko. Gobernu berriak, trukean, «monje erkidego» horrek eta hartako kideen senitartekoei dituzten gizarte pribilegioen sail luzea mantendu beharko du, eta, hala, egonkortasun politikoaren arabera, gizartean oraindik ere haustura handiak eragiten ari den gatazka bat iraunaraziko du, laikoaren eta erlijiosoaren artekoa. Bixiki, eta aipatu guztia-
ren aurrez aurre, hauteskundeak erakunde berri bat utzi dute agerian, Sinui antikerikala: sei diputatu lortu ditu laikotasun erradikalararen alde eginez, eta Tel Aviv-eko gau eroetan protagonista diren milaka gazte erakarri ditu. Gizartean gertatzen ari den haustura kulturalaren beste sintoma bat da, gizartea azkar desagituratzen ari da.

Auzi palestinarra

Dudarik gabe, funtsezko gaira iritsi gara. Zein neurritan erraz dezake laboristak agintera itzultzeak arabiarren eta israeldarren arteko bake prozesua? Alde askotatik begiratuta, Netanyahu eta Barak-ek hauteskundeetan egindako promesak ez dira desberdinak izan. Biek ala biek argi utzi dute inoiz ez dela aldatuko Jerusalem hiriaren estatusa, behin betiko erretiratuko dutela Israelgo Armada 1978. urteaz geroztik Libanoko hegoaldean okupatu duen ingu-

rutik, prest daudela Siriarekin akordio bat lortu eta 1967an *manu militari* konkistatutako Golango mendiskak erabat edo zati batean ebakuatzeko, Zisjordanian dauden 160.000 kolonoetatik gehienek han jarraituko dutela... Gai nontzekoa palestinarrakiko harremanen gaineko terminologia kontuak baino ez dira; bide batez esana, bi erakundeek kasik erabat baztertu zuten gai hori hauteskunde kanpaina osoan zehar. Laboristek eta kontserbadoreek auzi palestinarrari azken urteotan zer nolako filosofiarekin aurre egin dioten ikusita, egia da begi-bistako desberdintasunak daudela. Baina Baraken gobernu berriak gai honetan zer egin dezakeen asmatzen ahalegintzeak sinesmen mailan mugitzera behartuko gintuzke. Badirudi orain arteko harremanetan izandako jarrera aldatu egingo dela, kontaktuei Netanyahu eta haren lur kiskalik politikak *sine die* geldiarazi zituzten lekuan berrekingo zaiela, eta Arafaten Aginte Palestinarrak, barne-indarra galdu ondoren, konfiantza galdua berreskuratuko duela. Baina sakoneko arazoak bere horretan dirau. Independentzia deklarazio nominalista eta testimonial jakin batzuetatik haratago, estatu sionistaren iraupenak guztiz eragozten du munduko inguru hartako arazoak konpontzea, haren funtsa filosofia militarista eta teokratikoa delako, eta etorkizunean ere, ezinbestean, han gertatzen direnek aldi-aldi zertaz larritu ekarriko digute. Baraken garaipen errazetik haratago, gaitzetan txikiena izan baita.

• Erredakzioan itzulia

Konstituzionalaren erabakiari buruz...

• XABI LARRALDE •

[ABERTZALEEN BATASUNEN BOZERAMAILEA]

Herenegun erori zen berria: frantses estadoak Eurokartaren izenpetzea ez du onesten kontseilu konstituzionalak. Denen artean (eta zu barne, Maitia Jauna) erabaki horren ondorioak atera behar ditugu. Nik pertsonalki hiru ondorio azpimarratuko nituzke:

1. Kontseilu konstituzionalak emandako argudioari buruz. Budapesten hautatutako Eurokartaren artikuluen zerrenda ezagutzerat eman zenean, operazio hori faltsukeria haundi bat zela salatu zuen AB-k berehala. Hau da, Pariseko sozialistek Eurokarta sinatzean, itunaren aintzin-solasean aipatua den «bizitza pribatua eta publikoan herri hizkuntzen erabiltzeko eskubide ezin ukatzukoa»-aren printzipioa onartu zutela bainan sinbolikoki bakarrik; engaiamendu konkretuak suposatzen dituzten Eurokartaren atalak hautatzerakoan, herri hizkuntzen erabilpen

publikoa normalizatzen duten artikulua erabat baztertu baitzituen gobernuak. Kontseilu konstituzionalak berak agerian utzi du atzo sozialisten itxurakeria hori. Izan ere, Eurokartan agertzen diren neurri konkretuen hautaketari dagokionez, Frantziak izenpetutako 39 artikuluk ez dute arazorik pausatzen konstituzioari begira. Haatik, Itunaren sarreraren azpimarratuak diren printzipio batzuk ezin onartuzkoak dira Konstituzionalaren ustez, eta horien artean hizkuntz guttituen hiztunei eremu pribatua nola publikoan eskubideak aitortzeak «legearen aintzinean biztanleen berdintasun printzipioa zangopilatzen du» eta Errepublikaren banaketa zatiezintasuna kolokan jartzen.

2. Frantses Errepublikaren jarrerari buruz. Ez gira luzatuko pundu horren inguruan. Berriz ere, Frantses Errepublikaren *maska* erortzen da: mail apa-

lenean ere, bere minoritate nazionalen eskubideen onartzea ukatzen du. Euskal Herri departamenduaren aldeko aldarrikapenarekin baginakien hori egiaztatzen dela sail instituzionalean. Frogatzen dute orain egia dela ere hizkuntz guttituen kasuan. Eskubideen zangopilatze bat baldin bada ez da Kontseilu konstituzionalak aipatzen duena. Nahiz eta zuen burua frantses Errepublikaren barnean kokatu zuek, Ipar Euskal Herriko demokratek (sozialistak, bainan bai ere zentristak, RPR eta komunistak) ezin duzue jarra hori kozionatu, zuen ikuspegitik ere bai Frantses Estadoaren jarrera antidemokratikoa baita. Dakizuen bezala demokraziaren oinarritzko printzipioa da: gehiengoaren legea, bainan minoritateen errespetuan.

3. Euskararen aldeko borrokaren segidari buruz. Orain gauzak erabat argi gelditzen dira. Estatutu publiko bat er-

dietsi behar dugu egoera larrian den euskararentzat. Eta hori lortzeko frantses konstituzioaren 2. artikulua mada-rikatu hori ezabatu behar da edo aldatu behintzat. Beste biderik ez da! Guk abertzaleak euskararen ofizialtasunaren aldeko borroka hori gogor segituko dugu, guretzat hil-ala-biziko borroka bat delako. Bainan euskararen alde tinko eta gogor borrokatzea ez da bakarrik abertzaleen erantzukizuna, gure hizkuntzari eta euskal kulturari egiazki atxikiak diren «demokrata» guziena baizik! PS, RPR, UDF PC eta gainerakoak: itxurakeriazko jarrerak utzi, eta aldeko posizionamendu huts batetik egiazko borroka dinamika batetarat pasatu! Bide batzuk idekiak dituzue jadanik (2. artikulua aldatzearen aldeko talde parlamentarioa hor daukaguzue adibidez), eta berri batzuk elgarren artean zabaltzea beharko ditugu, denak batean euskara salba dezagun!